

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2017 / 2018 ikasturtea

**AUTOEZAGUTZAREN GARRANTZIA GIZARTEAK LEHEN
HEZKUNTZAKO IKASLEEN GENERO IDENTITATEAN DUEN
ERAGINA ADIERAZTE ALDERA**

Egilea: Amaia Carregal Aldanondo

Zuzendaria: Ana Rosa Arrivillaga Iriarte

Leioan, 2018ko maiatzaren 29an

EGILEAREN ONIRITZIA

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teoriko eta kontzeptuala.....	5
1.1 Autoezagutza	5
1.1.1 Autoezagutza eta autoestimua	5
1.2 Autoezagutza eta eskola	8
1.3 Autoezagutza eta gizartea	9
1.4 Autoezagutza eta sexu-genero sistema.....	10
2. Metodologia	12
2.1 Ariketen diseinuaren justifikazioa	13
3. Lanaren garapena.....	18
3.1 Pretest-a	18
3.2 Postontzi magikoa	19
3.3 Nik ere gauza politak entzun eta esan ditzaket.....	19
3.4 Desberdintasuna aberastasun.....	20
3.5 Gorputzak eta gorputzak.....	21
3.6 Niri ere gertatzen zait	22
3.7 Postest.....	23
4. Emaidzak	24
5. Ondorioak	26
Erreferentzia bibliografikoak.....	28
ERANSKINAK.....	31
1.ERASKINA	31
2.ERANSKINA.....	35
3. ERASKINA	39
4. ERANSKINA.....	39
5. ERANSKINA.....	40
6. ERANSKINA.....	41
7.ERANSKINA.....	42
8. ERANSKINA.....	43
9.ERANSKINA.....	44
10. ERANSKINA.....	45
11.ERANSKINA.....	46
12. ERANSKINA.....	46
13.ERANSKINA.....	52

AUTOEZAGUTZAREN GARRANTZIA GIZARTEAK LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN GENERO IDENTITATEAN DUEN ERAGINA ADIERAZTE ALDERA**Amaia Carregal Aldanondo**

UPV/EHU

Hezkuntzan, oraindik ere behar adina garrantzia ematen ez zaion eta ikaskuntzaren garapenerako ezinbestekoa den autoezagutza da lan honen oinarria. Honen inguruko esku-hartze bat diseinatu eta lehen hezkuntzako lehenengo mailako ikasleekin praktikara eramán da. Autoezagutzan aldaketak luzarora ematen direla jakinda, lan honen helburua, aniztasuna oinarritzat duen jarduera sorta baten bitartez, ikasleei pentsamendu edota bide berriak irekitzea izan da. Ikasgelako esku-hartzean Pretest eta Postest galdetegiak bitartez lortutako emaitzetan oinarrituta, ondorio batzuk atera dira. Ondoren, burututakoaren inguruko autokritika egin da eta gizarteak gure autoezagutzan duen eraginaren inguruko hausnarketa burutu da.

Autoezagutza, gizartea, generoa, estereotipoak, hezkuntza.

La base de este trabajo es el autoconocimiento. A pesar de que en la educación todavía no se le da la suficiente importancia, éste es imprescindible para el aprendizaje. Sobre ello, se ha diseñado una intervención que ha sido llevada a la práctica con alumnos de primer curso de educación primaria. Sabiendo que los cambios en el autoconocimiento se dan a la larga, el propósito de este trabajo, es facilitar a los alumnos nuevos pensamientos y/o caminos, mediante un conjunto de actividades, las cuales tienen como base la pluralidad. Teniendo en cuenta los resultados obtenidos de los cuestionarios Pretest y Postest, se han sacado algunas conclusiones de la intervención en el aula. Después, se ha hecho autocritica sobre lo realizado y se ha reflexionado sobre la influencia de la sociedad en nuestro autoconocimiento.

Autoconocimiento, sociedad, género, estereotipos, educación.

The basis of this work is self-knowledge. Although education still does not pay enough attention to it, it is essential for learning. Based on that, an intervention has been designed and carried out with students of the first year of primary education. Being aware of the fact that changes in self-awareness occur in the long run, the purpose of this work is to facilitate the students new roads through a set of activities that are based on plurality. Taking into account the results obtained from the Pretest and Postest questionnaires some conclusions of the intervention in the classroom have been carried out. Afterwards, self-criticism has been made, and there has also been a reflection on the influence of society on our self-knowledge.

Self-awareness, society, gender, stereotypes, education.

Sarrera

Graduan zehar izan dira erakargarriak egin zaizkidan arloak, baina bada bat beti buruan bueltaka izan dudana eta ustez norbanakoarentzat garrantzi berezia daukana. Gure gizartean, jada onartuta dauden balore, ezaugarri, izaera, genero, sexu...aintzat harturik, pertsona bat garatzen joaten da gugan. Pertsona horrek ordea, libreki garatzen ote du bere identitatea? Jendeak espero duenaren edota benetan garenaren arabera garatzen ote gara? Jartzen ahal gara noizbait pentsatzera nolakoak ote garen edota nor izan nahi dugu? Ezagutzen al dugu geure burua eta onartzen ote gara garen bezalaxe?

Zoritxarrez, gaur egun eskoletan ez zaio behar adina garrantzirik ematen ikasleen autoezagutzari eta alderdi emozional eta afektiboari. Horrela, ikasleak bere nortasuna garatzeko aukera gutxiago dituelarik. Norberak bere burua ezagutzea ezinbestekoak da, izan ere, nire burua ondo ezagutzen ez baldin badut eta ideia desegokiak baditut gorputzaz edota buruaz, zailagoa egingo zait harremantzea. Norbere burua ezagutzea oso lagungarria da norbere bertute eta ahuleziak ezagutu eta denak onartzeko.

Hori horrela izanik, ikasle bakoitzak bere autokontzeptua lantzeko, nolakoak diren ezagutzeko interbentzio bat diseinatu eta praktikara eraman da lehen hezkuntzako lehenengo mailako ikasleekin. Gainera, bai fisikoki zein psikologikoki ezberdinak garela eta horrek, aberastasuna dakarrelaz ohartzea izan da sortutako esku-hartze honen helburua. Horretarako, interbentzioa aniztasunean oinarri hartzen duten jarduera ezberdinez osatu delarik.

Ikasleei egokitutako materiala sortu da zenbait jarduera burutzeko; izan ere, gutako bakoitzak ahuleziak eta trebetasunak ditugula onartzeko eta gurekiko onespén, esfortzu eta konfiantzarekin, helburu edota jomuga bezala ditugun edozein gailur igotzeko gai garela ohartarazteko, ezinbestekoa da aniztasuna bera onartzea. Horrez gain, ikasleen autoezagutzan aldaketarik eman den ala ez jakiteko, Pretest eta Postest galdetegiak erabili dira.

1. Esparru teoriko eta kontzeptuala

“De todos los conocimientos posibles, el más sabio y útil es el de conocerse a sí mismo” (William Shakespeare).

1.1 Autoezagutza

Miras-en (2010) arabera autoezagutza norberak bere buruarekiko duen irudikapena da, baita González eta Tourón-entzat (1992; Fernández eta Rodríguez-ek aipatua, 2007) ere, autoezagutza nor bere buruaz duen pertzepzioa dela ziurtatzen dutelarik. Shavelson, Hubner eta Stanton-ek (1976; Garma eta Elexpuru-k aipatua, 1999) aurreko definizioari, bizi izandako esperientziak eta harremanak oinarritzat hartuz osatzen dela gehituko liokete. Azken idazle hauekin bat eginda honako hau idatzi zuen Machargo-k (1991, 33.or.): “El autoconcepto se construye y define a lo largo del desarrollo por influencia de las personas significativas del medio familiar, escolar y social, y como consecuencia de las propias experiencias de éxito y fracaso”.

Autoezagutza definituta, aipatzekoa da, autoezagutza hainbat urteetan estruktura dimentsio-bakarrekoa eta globala izan dela, ordea, 70eko hamarkada erdialdean, autoezagutza multidimentsionalaren eta hierarkikoaren ideia nagusitu zen. Horren harira, Shavelson, Hubner eta Stanton (1976; Maria Martinez-ek aipatua, 2015) izan ziren eredu hierarkikoa proposatu zutenak. Bertan, autoezagutza orokorra, autoezagutza akademiko eta ez akademikoan banatzen zituztelarik. Autoezagutza ez akademikoan, Elexpuru eta Garma-ren (1992, Maria Martinez-ek aipatua, 2015) ustetan, hiru osagaik osatzen dute, besteak beste: osagai emozionalek, sozialek eta fisikoek. Azken hauek, lan honetan burutuko den esku-hartzean landuko direnak dira.

Izakia fisikoa eta soziala izateaz gain, emozionala ere badela esango nuke. Egiten dituen askoren oinarrian emozioak baititu. Hau esanda, autoezagutza eta autoestimua arteko erlazioak garrantzizkotzat hartu beharko liriateke, horregatik ekin diezaiozun hala, horiek aztertzeari:

1.1.1 Autoezagutza eta autoestimua

Etengabe aipatzen gabiltzan nor bere buruarekiko ezagutza hori, balorazio batekin osatzen da: zein neurritan baloratzen ditudan nire ezaugarriak eta kompetentziak, zeinen asebeteta edo asebete gabe, pozik edota triste, sentitzen naizen nire izaerarekin, etab.

Pertsona bakoitzak bere buruarekiko duen ikuspuntu hau (*nia*-ren balorazioa dena) autoestimua bezala ezagutzen dugu (Palacios, Marchesi eta Coll, 1990).

Autoestimua produktu psikologiko bat da, zeina batzuetan zeinu positiboz eta besteetan negatiboz lagundua doana. Errealitateko datuen eta gure aspirazio eta desiren arteko distantzia laburra denean edota ez dagoenean, zeinu positiboa izango du. Aitzitik, lortu duguna edota lortzeko gai garena, gure meta eta ilusioetatik urrun dagoela pertzibitze dugunean, zeinu edota konnotazio negatiboa hartzen du (Palacios, Marchesi eta Coll, 1990).

Coll, Palacios eta Marchesi-k (1990) esaten duten bezala, autokontzeptu eta autoestimua hitzek, momentu zehatz batean pertsona batek bere ezaugarriei buruz duen irudikapenei eta ebaluazio afektiboari dagokie. Honen harira, egile batzuek nozio hauen ezaugarriei estatikotasuna egotzirik, aldaketa baten behar izana ikusten dute, horretarako etorkizun batean norberak bere buruari buruz duen irudikapena ere kontuan hartzea proposatzen dutelarik.

Markus-ek eta Nurius-ek proposatutako (1986; Coll, Palacios eta Marchesi-k aipatua, 1990) *nia* posibleen azalpenak jasotzen du ideia hau, James, Freud eta Rogers bezalako idazleen lanetan oinarri hartzen duena. Etorkizun bateko norbere irudikapenak, Markus-en eta Nurius-en arabera *nia* posible ezberdinak barne hartzen ditu; pertsonak etorkizunean izatea espero duen *nia* hori, pertsona horrek izatera heldu nahi ez duen *nia*, pertsona horren ustetan izatera heldu beharko lukeen *nia*, pertsona horrek izatea desiratuko lukeen *nia* eta izatera heltzearen beldur den *nia*.

Alde batetik, *nia* posibleek orientatu eta pertsonaren portaera gidatzen dute, lortu nahi dituen eta saihestu nahi dituen *nia* posibleak existitzen diren heinean. Honela, pertsonaren aspirazio, beldurren eta bere buruarekin lotutako egoera afektiboen irudikapen bezala funtzionatzen dute. Bestalde, *nia* posibleek erreferentzia markoak osatzen dituzte, zeinetan pertsonak bere autokontzeptua eta momentuko jokaera ebaluatu eta interpretatzen dituen, horrek bere autoestimuan inpaktua eragin dezakeelarik. Horrela, notarik altuena ateratzea espero zuen ikaslea, ikasgelako bigarrena *baino ez* izatean, zorigaitzeko senti daitekeen artean, gainditzea espero ez zuen hori, pozik egongo da gainditze hutsarekin (Coll, Palacios eta Marchesi, 1990).

Honekin jarraituz, ikasle batek momentu konkretu batean bere buruari esleitzen dizkion ezaugarri horien inguruan egiten duen balorazioa (adibidez, *ez naiz trebea idazten*) ikasle

horrek dituen *nia* posibleen arabera izango da (adibidez, nobelagile aparta izan nahi izatea). Izan ere, *nia* posibleen nozioaren inklusioak, autokontzeptuarekin eta autoestimuekin bat eginik, *nia*-ren sistema taxutzen duen bilkura osatzen du. Sistema hori, banako baten bizitzan zehar sortu eta garatzen da, eta berorren eraketan, bere historial pertsonalean izandako arrakastek eta porrotek, bai eta gainerakoekin dituen harremanek eta berorien onarpen maila eta euskarri emozionalek -batez ere gurasoek, lagunek, irakasleek...- eragin handia dute. Sistema honek esperientziaren interpretazio pertsonalak organizatzen eta banakoaren jarrera gidatzen duen artean, ikasleen eta irakasleen jarreran eta hezkuntzako prozesuen garapenean eragin handia duela pentsatzeak logikoa dirudi (Coll, Palacios eta Marchesi, 1990).

Sistema horrekin elkarlanean, badira kausazko atribuziozko mekanismoak, gure garapen afektibo eta emozionalaren ikasketan baita, zer esana dutenak. Hauek, bai guri bai gainerakoei gertakari jakin batzuk zergatik gertatzen zaizkigun azaltzeko moduari erreferentzia egiten diotenak dira; hau da, gertatzen zaizkigun gertakariei kausa bat esleitzeko erabiltzen ditugun mekanismoak. Gutako bakoitzak mantentzen dituen atribuzio horiek, arrazoi ezberdinengatik, sarritan, ez dira sutuki, logikaren legez zuzentzen, norberak duen *locus of control* izenekoarekin baizik. Honek zera esan nahi du: pertsonak, *nia* bere gertakarien kausatzat hartzen duen edo ez sentitzea. Esaterako, ikasle batek azterketan nota txarra atera izana irakasleari leporatzen dionean (kausa bezala kanpoko eragile bat denean) kanpoko *locus of control*-a duela esaten da. Ordea, ikasleak bere buruari (*nia*-ri) leporatzen baldin badio azterketan emaitza hura lortu izana, barruko *locus of control*-a izango du (Coll, Palacios eta Marchesi, 1990).

Ikaskuntzari aurre egiten dieten autokontzeptua, *nia*-ren sistema eta patroi atribuzionalak, ez dira faktore independenteak; areago, autoestimu maila positibo baten mantentzea ahalbidetzeko, elkarrekin antolatzen eta harremantzen jotzen dute orokorrean. Norberarekiko errepresentazioa eta ebaluazioa, baita ikaskuntzari aurre egiteko ikasleak dituen arrakastak eta porrotak, eskola ikaskuntzaren dimentsio afektibo eta emozionalak zehazten dituzten alderdi batzuk dira Solé-n (1993; Coll, Palacios eta Marchesi-k aipatua, 1990) ustetan.

Hori horrela izanik, jo dezagun orain eskola esparrua sakonago aztertzen eta neronek arestian aipatutakoen baldintzatzen duen ezinbesteko garrantziaz hausnartzen.

1.2 Autoezagutza eta eskola

“El desempeño productivo y el desempeño ciudadano requieren el desarrollo de una serie de capacidades... que no se forman ni espontáneamente, ni a través de la mera adquisición de informaciones o conocimientos. La escuela – o, para ser más prudentes, las formas institucionalizadas de educación – debe, en síntesis, formar no sólo el núcleo básico del desarrollo cognitivo, sino también el núcleo básico de la personalidad” (Savater, 1997, 60. or.).

Savater-ek argi esaten duen bezala, eskolak umearen garapen kognitiboari soilik arreta jarri beharrea, ikaslearen garapen pertsonalari ere arreta berezia jarri beharko lioke. Azkenaldian, zorionez, adimen emozionalari edota ikaslearen garapen afektiboari garrantzi handiagoa ematen ari zaio hezkuntzan, izan ere, paper garrantzitsua du ikaslearen garapenean eta hezkuntza prozesuetako emaitzetan (Coll, Palacios eta Marchesi, 1990).

Hezkuntza formalaren erraminta dugu eskola eta bertan ikaslea funtsezkoak diren beste pertsonekin erlazionatzen da, hala nola: beste ikasle eta irakasleekin. Irakasleek eta ikasleek euren buruaren errepresentazio bat duten neurrian, gainerakoek ezaugarrien errepresentazio bat ere gauzatzen dute (beraien gaitasunen, arazoien eta intentzioen errepresentazio bat eraikitzen dute) (Coll, Palacios eta Marchesi, 1990). Beste ikaskide edo irakasleek sortzen dituzten irudikapen eta itzaropen horiek, ikaslearen autoezagutzan eragin handia dute (Miras, 2010).

Hori dela eta autoezagutzaren garapenean eskolak paper garrantzitsua betetzen duela esan genezake; izan ere, trebetasun berrien garapena ahalbidetzen du eskola-aldian zehar, Garma eta Elexpuren hitzetan, ikasleak bere burua modu desberdinean ikusten duelarik:

“Desde su ingreso en el centro escolar, al inicio de la Educación Infantil, hasta que lo abandona al finalizar la Educación Secundaria, la forma en que el estudiante se percibe cambia totalmente. Evidente y espectacular es la transformación física, pero no son menos importantes los cambios en la manera de percibirse y de interpretar su experiencia, que evoluciona desde percibirse de manera absoluta, a partir fundamentalmente de características observables y de las reacciones de los otros significativos” (Garma eta Elexpuru, 1999, 33. or.).

Eskolak umeari beste ikaskideekin konparatzeko eta besteek hura nola ebaluatzen duten pertzibitzeko aukera ematen dio. Eskolan, norberak bere buruarekiko ideia eraikitzen du etengabe, ikasleak eredu berriak ikusten ditu hauek erreferentziatzat hartuz, konparazioak egiten ditu, baita horrela, bere buruaren inguruko balorazio bat ere. Esaterako,

matematiketan, bere klasekideak baino trebeagoa edota traketsagoa izan daitekeela etab. (Elexpuru eta Garma, 1999).

Ikasleen irudikapenen, atribuzioen, itxaropenen eta hasierako interesen ezaugarrietan eragina izan dezakete irakasle-ikasle arteko interakzioek, ikaskuntzaren zentzua, motibazioa eta ikuspuntua aldatuz. Ez hori bakarrik, interakzio horietan, irakasleak, ikasle bategandik espero dezakeenaren aurreikuspen bat garatzen du eta, aldi berean, ikasle batek ere, irakasle zehatz bategandik edota kide bategandik espero dezakeenaren aurreikuspen bat eraikitzen du (Coll, Palacios eta Marchesi, 1990).

Espektatiba horien ondorio gisa, bakoitzak, bestearengandik espero duenaren arabera jarduteko joera hartzen du eta era horretan, espektatibek zuzenezko edo zeharkako eragin bat dute bere jarreran, bai eta elkarrekin izaten duten harremanetan. Jakin izan dudan legez, fenomeno hori “autogauzatzearen profeziarekin” erlazionatzen da; soziologiaren esparruan Merton-engatik sortutako nozioarekin. Azken horren arabera, norbaitek gertakari zehatz bat profetizatu edo aurreikusten duenean, noizbehinka, bere jarrera moldatzean, profetia gauzatzeko probabilitate objektiboa areagotu egin daiteke (Coll, Palacios eta Marchesi, 1990).

Beraz, hitz egiten aritu garen ikasle-irakasle eta ikasle-ikasle arteko interakzioek etengabeko eragina dute norbere autoezagutzan. Hori dela eta, ezinbestekoa da, ikasleek, eskolan ematen duten denboran, izan nahi duten pertsona aurkitzeko aukera izatea, gatazkak eta nahasketak onartuz eta errespetatuz. Honetan irakaslearen erantzukizuna handia delarik.

1.3 Autoezagutza eta gizartea

Etengabe irteten ari den kanpo eragin hau, gainontzekoek nork bere autoezagutzan dutena, eskolan ez ezik, neurri handiago batean gizartearengandik ere pairatzen du norbanakoak. Honen harira honako hau dio, Arrizabalagak (2017):

“Ezberdina izango da auzo bateko eskola txiki bateko LHko gela batean zer eredu eskain litekeen, edo hiri handi bateko unibertsitateko fakultate zehatz bateko eredu. Eskola hori txertatuta dagoen inguruneak eta komunitateak eragina du, eskola ez baita independentea, gizartearen eta bere ingurunearen isla bat da”.

Navarro-ren (2009) ustetan, gizarteak pertsona baten autoezagutzaren garapenean paper garrantzitsu bat betetzen du. Izan ere, jaiotzen garenetik, gure buruari buruz dugun irudia, familiarekin ditugun interakzioekin eraikitzen hasten da. Ez hori bakarrik, gainera,

familia bakoitzak kultura ezberdin baten bidez arau edota bizitzeko era bat barneratzen du, horiek generazioz generazio transmititzen direlarik, pertsona bakoitzaren nortasunaren eraikuntzan eraginez.

Savaterren (1997, 11. or.) ondorengo hitzek, aurreko ideia indartzeko balio dute: “los humanos nacemos siéndolo ya pero no lo somos del todo hasta después”. Inguruan ditugun pertsonekin kontaktuan, harremanduz eta jarrerak imitatuz lortzen dugu gizaki izatea, zenbait balore barneratuz eta horietan oinarriturik jardunez. Miras-ek (2010) ere ideia honekin bat egiten du, beste pertsonekin (bereziki, pertsona adierazgarrienekin, hau da, gurasoak, lagunak, irakasleak, etab.) izandako harremanek gure autoezagutzaren eraikuntzan eragina dutelarik hain zuen. Horregatik, norberaren irudia, kanpotik barrura eraikitzen dela esan genezake, inguruak gutaz esaten duen horren arabera eta ez alderantziz.

1.4 Autoezagutza eta sexu-genero sistema

Esperientzia sozialak gugan duen eraginarekin jarraituz, jo dezagun orain *gure* genero-identitate (portaerak eta subjektibotasunak), *gure* identitate sexualak (desirak eta afektibitateak) eta gizartean egoteko *gure* aukerek (rolek), gugan duten eragina aztertzeraz. Horretan hasteko edota eragin hori ulertzeko, elementu gisa erabiltzen diren eta eraikiak diren bi elementu izango genituzke: sexua eta generoa.

Subiratzek (1994), generoa, gizarte bakoitzak behar ezberdinen arabera sortutako eta jaiotzetik gizakioi inposatutako jokabide, desio eta jarrera ezberdinak burutzeko oinarri gisa definitzen du, sexu bakoitzarentzako desberdintutako arau ezberdinetan; emakumeentzako batzuk, gizonezkoentzako beste batzuk. Arau multzo horiek, geure burua ikusteko moduarekin, bai eta gainerakoekin ditugun interakzioekin, sakonki daude loturik. Hortaz, generoa, gure adina edozein delarik, ditugun ezaugarri identifikagarrienetako eta gehien definitzen gaituenetako bat da (Palacios, Marchesi eta Coll, 1990).

Era goiztiarrean ikasten dugu gure burua eta gainerakoak generoagatik deskribatzen, mutilen edo nesken taldekatze batekin, horrela, gure autokontzeptuan eraginda. Halere, garapenean generoak duen agerpena, ez da amaitzen mutilen edo nesken taldekatze horietako partaidetza gure nortasun pertsonalaren elementu zentrala bilakatzen denean; mutiko-neskatila edo gizon-emakume etiketa horiei, eta talde sozial eta kultural bakoitzeko estereotipo eta baloreekin bat eginik, pertsonen jarreraren eta izaeren

no lakotasunen atribuzioen eta espektatiben esleipenak egiten baitzaizkigu (Palacios, Marchesi eta Coll, 1990).

Jaio baino lehen, gizonezko edota emakumezko etiketa jartzen digute, bai sexu eta baita generoaren ezarpenarekin, noski (Santos, 2000). Lehen haurtzaroaren amaierarako, haurrak, genero baten edo bestearen parte sentitzen hasteko gai dira; era berean, gainerako generoa hautematen eta etiketatzen hasten dira. Honi deritzogu hain zuzen genero identitatea (Palacios, Marchesi eta Coll, 1990). Genero-identitatea *gizonak* edo *emakumeak* izatearen sentimenduari dagokio beraz, baita araututa ez dauden identitatei ere, hala nola *transsexualitateari* eta *transgeneroari*.

Beraz, aurreko hitzak oinarri hartuz esan genezake, gizarteak bultzatzen dituen jarrera konkretu batzuk barneratzen ditugula, inolako kritikotasunik gabe, ia kontziente izan gabe. Ez hori bakarrik, sexu bakoitzari zenbait ezaugarri esleitzen zaizkio, ohikotzat edo normaltzat hartzen direnak, genetikoki baldintzatuta bageunde bezala, modu horretan genero rola sortuz (Santos, 2000).

Ikuspuntu biologikotik, ezin genezake esan gizonen eta emakumeen artean desberdintasunak ez daudenik, izan ere, sexu-organo ezberdinez osaturik baikaude. Gainera, giza ugalketan ditugun funtzioak ezberdinak dira. Ordea, desberdintasun biologikoa horiek ez dute determinatzen sexu bakoitzak ahalmen, trebetasun edota jarrera ezberdinak dituenik; hauen eragile nagusia generoa litzateke (Subirats, 1994). Ulertzen da gorputzek desberdintasun anatomiko naturalak eta biologikoak dituztela, ordea, guk geuk interpretazioak egin eta horiei esanahia ematen diegu.

Oraindik genero estereotipoen presentzia handia dago gizartean. Ar edo eme jaiotzen gara eta aldez aurretik aipatu bezala, gizarteko kulturaren eta ideologiaren beharren arabera, generoa eraikitzen dugu maskulinoaren edo femeninoaren arau ezberdinak barneratuz (Suárez, 2007). Genero bakoitzari, sistematikoki eta pertsona bakoitzaren ezaugarri eta jarrerak kontuan hartu gabe, modelo finko eta orokorrak ezartzen zaizkio, estereotipo sexistak sortuz.

Horrela ba, estereotipoak, gure egunerokotasunean ohikotzat ditugun jarrera onartuak bilakatu zaizkigu. Horren erantzule bai eta arerio nagusienetako bat, heziketa dugu; eta heziketaren erantzule eta arerio nagusienetako bat, hezkuntza sistema. Arerio izatetik ordea, aldaketarako lanabes edota erreminta izatera pasa daiteke berdintasunean eta hezkidetzan oinarritutako hezkuntza sistema eratzen baldin badugu.

Azkenik, esan beharra dago, berdintasunean eta hezkidetzan oinarritutako gizarte bat osatu edota sortzekotan, hezkuntza sistemaren gain jartzen den lorpen honen pisu guztia, familia eta komunikabideengan ere jarri beharko litzateke, eskolarekin batera, ardura hezkidetzaila izan beharko luketelarik. Berdintasuna ezin baitu norberak bere kabuz bakarrik ikasi ezta bultzatu.

2. Metodologia

Lan honetan planifikatu, sortu eta burutu diren esku-hartze saio guztiak hiru helburu nagusi izan dituzte oinarritzat. Batetik, ikasle bakoitzak bere autokontzeptua lantzea, nolakoak diren ezagutzea. Bestetik, ezberdinak garela onartzea bai fisikoki bai psikologikoki eta horrek dakarren aberastasunaz ohartzea. Eta azkenik, gutako bakoitzak ahuleziak eta trebetasunak ditugula onartu eta gurekiko onespren, esfortzu eta konfiantzarekin, helburu edota jomuga bezala ditugun edozein gailur igotzeko gai garela ohartzea.

Helburu horiek lortu ahal izateko, 8 saio desberdinetan banatutako 7 jarduera diseinatu dira. Hona hemen jardueren aurkezpena:

JARDUERAK	SAIOAK
1. Pretest-a	SAIO 1
2. Postontzi magikoa	SAIO 1
3. Nik ere gauza politak entzun eta esan ditzaket	SAIO 1
4. Desberdintasuna aberastasun	SAIO 1
5. Gorputzak eta gorputzak	2 SAIO
6. Niri ere gertatzen zait	SAIO 1
7. Postest-a	SAIO 1
7 JARDUERA	8 SAIO

Jarduera horien bitartez ikasleak aukera izango du batetik, alderdi emozionala garatzeko eta bestetik, arrazonamendua lantzeko. Izan ere, autoezagutzaren inguruko etengabeko informazioa jasoko du burutzen dituen jardueren bitartez eta baita enpatia garatzekoa, gainontzekoen egoeran kokatzeko aukera luzatuko zaiolarik. Aipatzekoa da, jarduera batetik bestera, zailtasun maila handitzen joango dela, ikasleen erritmoa kontuan harturik.

Pretest galdetegiaren bitartez, ikasleak gaiarekin lehenengo kontaktua izan du, horrela, ondoren, *postontzi magikoaren* jardueran, bere nortasun ezaugarri positiboa adierazteko burua kokatuta izango duelarik. Behin norberak bere ezaugarriak aztertuta, *nik ere gauza*

politik entzun eta esan ditzaket jardueran, gainontzekoen nortasun ezaugarriak aztertzen aritu dira. Behin pausu hori emanda, *desberdintasuna aberastasun* jardueran, gainontzekoen lekuan jartzea eskatuko zaie ikasleei, modu inkontziente batean, horrek kognitiboki eta emozionalki dakarren saltoarekin. Jarraian, aniztasun eta errespetu kontzeptuak landu ostean, *gorputzak eta gorputzak* jardueran, beraien autoezagutza fisikoa lantzerantz pasako dira. Nolakoak diren imajinatzetik, errealitatean diren bezala adieraztera egingo dute salto, bai bisualki zein manipulativoki.

Amaitzeko, *niri ere gertatzen zait* jardueraren bitartez, gainontzekoen ulermenarekin eta norbere buruaren onarpenarekin, konnotazio negatiboak edota aurreiritziak albo batera uzten ahaleginduko dira ikasleak, gainontzekoei afektibitatea erakutsiz. Esan beharra dago, esku-hartze hau aurrera eramateko beharrezko materialaren zati bat sortua izan dela, ikasle taldearen behar izan eta ezaugarrietara egokitutako materiala hain zuzen.

Ebaluazioari dagokionez, *Pretest*-a eta *Posttest*-a izan dira hau burutzeko erabili diren lanabesak. Ikasle taldea hasieran nola zegoen eta esku-hartzea amaitzean nola egon den ikusarazten lagundu dutenak. Dena den, emaitzak edota ondorioak ateratzean, kontuan hartu behar da, autoezagutzan aldaketak epe luzera ematen direla. Ordea, jarduerak bakoitza ebaluatzeko erabili diren beste tresna batzuk erabiliz, errazago bihurtzen da ebaluazioa burutzea.

2.1 Ariketen diseinuaren justifikazioa

Lehen aipatu bezala, lan honetan esku-hartze bat diseinatu eta burutu da. Bertan, hasieran planteatu diren hiru helburu horiek bete diren edo ez aztertzeko, ikasle bakoitzak beteko dituen *Pretest*¹ eta *Posttest*² galdera sortak erabiliko dira. Nabarmentzekoa da, galdetegi hauek guztiz anonimoak izango direla, izan ere, garrantzitsua ez da ikasle bakoitzak esandakoa azterzea, baizik eta ikaslearen aldaketa eman den edo ez azterzea. Hori horrela izanik, ikasle bakoitzaren *Pretest*-ak eta *Posttest*-ak zeintzuk diren jakiteko, bakoitzak atzealdean ikur txiki bat eramango du, ondoren horien alderatzea burutu ahal izateko.

Horrez gain, aipatzekoa da galdera sorta hau burutzeko, ikasleen adimen kognitiboa eta adina kontuan hartu direla. Hori dela eta, planteatzen diren galdera guztietan azalpen oso laburrak jarri dira, letra larriz idatzi direnak; eta irudi argiak erabili dira, ikasleren batek

¹ IKUS pretest galdetegiaren diseinua (1.eranskina)

² IKUS posttest galdetegiaren diseinua (2.eranskina)

irakurtzeko zailtasunak izatekotan, hauekin, galdera sorta uler dezan. Gainera, ikasleak eman beharreko erantzunei dagokienez, ez du inolako zailtasunik izango erantzuteko, ez baitago galdera bat bera ere, ikasleak zerbait idatzi behar izango duena, irudikatuz edota argazkien aukeraketa eginez erantzungo baititu.

Galdetegietan erabilitako irudiekin jarraituz, nabarmentzekoa da, argazki ez sexistak edota egokiak aukeratzeko ahalegina egin dela, nahiz eta zailtasunak eman diren horiek hautatzean. Izan ere, gehienetan nesken eta mutilen rolak oso definiturik azaltzen baitziren Internet-eko argazkietan.

Pretest eta *Posttest* galdera sortekin amaitzeko, esan beharra dago bi galdetegi hauek nahiko antzekoak direla. Alderatzen baldin baditugu, *Posttest*-ean ikasleei beraien gorputza irudikatzeko eskatzen zaien atalean (2.atalean) ariketa gehigarri bat azaltzen dela, *Pretest*-ean azaltzen ez dena. Ariketa horrek honetan datza: hirugarren atalean azaltzen diren emozioak gorputzeko atalen batekin harremantzean. Hau da, emozio horiek gorputzeko zein ataletan sentitzen dituzten adierazi beharko dute. Horrela, alderdi emozionalaren eta fisikoaren artean lotura egiteko gai diren edo ez aztertuko da. Gainontzeko galderak berdinak direnez, esku-hartzeko saioen ostean ikaslearen garapenean aldaketarik eman den edo ez aztertzea izango genuke, irizpide batzuetan oinarriturik.

Hurrengo jarduerak, *postontzi magikoa* izenekoak, esku-hartzeari hasiera emango dionak, norbere buruaren ezagutzan eta autoestimua indarketan laguntzea du helburu. Ikasleek denon artean gelako txoko bat aukeratu eta apaindu behar izango dute emango zaizkien kartulina eta koloretako margoak erabiliz. Hau burutu ondoren, ikasle bakoitzak bere postontzia sortuko du, gainontzekoengandik desberdintzeko, ikasle bakoitzak bertan nahi duena idatzi edota irudikatu beharko du, horrekin identifikatuta senti dadin.

Ikasleei azalduko zaie, eraiki duten txoko³ horrek beraien buruak ezagutzen lagunduko diela eta edozein momentutan barruan dagoenaz disfrutatzeko aukera izango dutela. Gainera, ikasle bakoitzak gainontzeko ikaskideei bertan idatzita dagoena kontatzeko aukera izango duen bezala berdin errespetatuko eta baloratuko da kontatu nahi ez baldin badute, ikasle bakoitzaren intimitate eta egoera emozionalari erreparatuz.

Postontzi magikoa deituriko dinamika hau, esku-hartze osoan zehar erabiliko den erraminta bat izango da, esku-hartze saio bakoitza borobilduko duena. Ordea, erraminta

³ IKUS postontzi magikoaren argazkia (3.eranskina)

honi hasiera emateko, ikasle bakoitzak bere burua deskribatzen duen ezaugarri positibo bat idatzi edota irudikatu behar izango du (ikaslearen gaitasunen arabera, batzuek zailtasunak baitituzte idazterako orduan) eta ondoren bere postontzian sartu. Beraz, postontzia sortuta eta norberak bere buruaz duen ezaugarri positiboa idatzita amaituko litzateke bigarren esku-hartze saioa.

Nik ere gauza politikak esan eta entzun ditzaket litzateke hurrengo saioko dinamika. Bertan ere, postontzi magikoari erabilera emango zaio, baina oraingo honetan, ikaslea ez da bere burua deskribatzen ahaleginduko, baizik eta taldeko gainontzeko hiru ikaskideena. Gainontzeko hiru kideen inguruko ezaugarri positibo bat idatzi beharko dute. Askotan kostatzen zaigu gainontzekoen inguruko ezaugarri positiboak azalratzea edota horieraz hausnartzea, hortaz, ikasleei zenbait adibide emango zaizkie oinarritzat hartu ahal izango dituztenak.

Oraingo jarduera honetan ez dute aukerarik izango irudirik egiteko, horrela, idazketa landuko dutelarik. Askotan idazten dituzten gauzek ez dute harreman zuzenik sentitzen dutenarekin; beraz, oraingo honetan, ikaskidearekiko sentitzen duten bibrazio positibo baten inguruan arituko dira, horrela, idazketari garrantzia kenduko diote, lagunari ezaugarri polit hori idazteko motibazioarekin. Gainera, lehenago aipatutako adibide laguntzaileak izango dituzte.

Horrez gain, ezaugarri horiek idatzi dituztenean, bakoitzari bere postontzian izango dituen hiru txarteltxoak irakurtzeko aukera emango zaio (bakoitzak ikasgelako edozein txoko aukeratu ahalko du irakurtzeko, eroso sentituko den txokoa). Ondoren borobilean, hausnarketa bideratzeko helburuarekin honako galdera hauek egingo dizkie irakasleak: *Nola sentitu zarete gainontzeko ikaskideei ezaugarriak idatzi dizkiezuenean? Eta zuen ezaugarriak irakurri dituzuenean?*

Ordea, ikasleek ez dituzte galdera horiek momentuan erantzungo, ikasgelan aurkitzen den emozioen txokora ⁴joango dira bakoitzak bere izena sentitzen duen emozioan kokatzera, horrela, ikasleak erabiltzera ohituta dauden txoko horri erabilera emango zaio. Ondoren, nahi izatekotan, ikasle bakoitzak aukera izango du sentitu duen emozioa gainontzekoei esan eta azaltzeko. Jarduera amaitzeko, irakasleak gainontzekoei gauza politikak esatearen inguruko garrantziaz hitz batzuk esango ditu, bere iritzia ikasleei helaraziz.

⁴ IKUS emozioen txokoaren argazkia (4.eranskina)

Hurrengo jarduera, *desberdintasun aberastasun* deiturikoa film labur batean oinarriturik egongo da, *El circo de las mariposas* deiturikoan hain zuzen. Hasieran, eta ikasleek Kiva⁵ proiektuan landutakoari erreparatuz, desberdintasunek dakartzaten aberastasunez hizketan arituko dira; horrela, film laburrari sarrera eginez. Ondoren, irakasleak hautatutako film laburreko hiru zati ikusi eta elkarren artean horren inguruko nondik norakoak komentatuko dituzte, irakasleak aurrez prestatu izango dituen galdera batzuen gidaritzapean. Aipatzekoa da, film labur hau gaztelaniaz eta ingelesez soilik ikus daitekeela, beraz, jarduera hau burutzeko ahotsa kenduko zaio bideoei, eta horren ordez, musika lasai bat jarri. Horrela, ikasleak ere irudiaren bidez soilik ulermena lantzeko aukera izango duelarik.

Film labur honek 20 minutu inguruko iraupena du, baina aurrez aipatu bezala hiru zati baino ez dira landuko. Izan ere, lehenengo mailako ikasleentzako minutu asko dira arreta mantentzeko, beraz hobeto barneratuko dituzte zenbait balore tarte laburreko bideoen bidez. Aukeratutako hiru hauekin honako hau landuko litzateke: batetik, fisikoki ditugun ezberdintasunez ohartzea, eta ez hori bakarrik, ditugun muga edota limitazio horiek gure bertute edota bereizgarri positibo bezala hartuz gero, ditugun helburu edota ametsak lortzera hel gaitezkeela. Bestetik, konturatuko dira, batzuetan ezberdintasun horiek gutxiesten dituztela eta gainontzekoen ahulgune gisa erabiltzen dituztela, hurbilekoa izorratuz edota berari adarra joz.

Emozioz betetako istorio labur bat da, non protagonistak bere gaitasun eta mugak ezagutz, bere ametsa lortzeko ahaleginak egiten dituen. Gaitasun eta mugen ezagutza horretan gainontzekoek bere inguruan duten aurreiritzi eta jarrerak eragin handia dutelarik beragan. Ikasleekin enpatia lantzeko film aproposa da honako hau, izan ere, askotan zenbait protagonisten jarrerak ikustean ikaslea identifikatua senti daiteke eta horrek hausnarketa batera bideratu.

Jarduerarekin amaitzeko, ikasle bakoitzak postontzi magikoan filma ikustean sentitutakoa adierazteko aukera izango du, irudi zein hitzak erabiliz.

Esku-hartzean burutuko den hurrengo jarduera *gorputzak eta gorputzak* deiturikoan, ikasleek beraien gorputzean, hau da, autoezagutza fisikoan jarriko dute arreta. Horretarako, material berezia sortu behar izan da; tamaina eta kolore ezberdinetako gorputz ezberdinak eta baita gorputzeko atalak ere (sudurrak, begiak, aluak, belarriak...),

⁵ IKUS Kiva proiektuaren inguruko informazioa (5.eranskina)

ikasle taldera egokituak noski. Horrez gain, arropa ezberdinak ere sortu dira. Izan ere, ikasleei beraien gorputza irudikatzen eskatzen zaienean, adin horietan, askok, arropa besterik ez dute irudikatzen; horrela, gorputzaren eta janzen dugunaren artean dagoen ezberdintasuna azpimarratuko zaielarik.

Honetarako taldea bitan banatuta egongo litzateke. Lehenengo taldekoek plastifikatutako itsasgarrien bidez, beraien gorputza, den bezalakoa adierazteko aukera duten bitartean, bigarren taldekoek, gustatuko litzaieken gorputz horretan jarriko dute arreta. Ondoren, zereginak aldatuko lituzkete. Bi taldeek material ⁶bera erabiliko dute jarduera burutzeko.

Niri ere gertatzen zait litzateke esku-hartzean burutuko den hurrengo jarduera. Honetan, ikasleek afektibitatea erakusteko edota gainontzekoen aurrean zenbait sentimendu adierazteko zailtasunak gainditzen hastea litzateke helburua. Horretarako, harremantzeko gizakiok ditugun modu ezberdinen lanketa burutuko da aurkezpen baten bitartez, herrialde ezberdinetako agur edota keinuak azalduko direlarik. Elkar agurtzeko edota maitasuna emateko ditugun modu ezberdin horiek landuz, ikasleek besarkada edota muxuei ematen dieten konnotazioari garrantzia kendu nahi zaio, ekintzari berari pisua kenduz.

Jolas modura planteatuko litzateke jarduera, arbelean herrialde desberdinetako argazkiak azalduko lirateke eta ikasleek horiek zein herrialdeetakoak diren asmatu beharko lukete. Behin hori burututa, ikasleei honako galdera hauek planteatuko zaizkie: *Zuek ematen al dituzue besarkadak eta muxuak? Gustatzen al zaizkizue? Eroso sentitzen al zarete keinu horiekin?*

Galdera horiek landu ostean, istorio txiki bat kontatuko zaie muxuak eta besarkadak gorroto zituen gazte baten ingurukoa. Koldo Amestoy-ren hitzetan (2017, 52. or.), “beste arteen gisara, emozio batzuk pizten dizkigute ipuinek”. Horrez gain, entzulearengan zerbait esnarazten dute, barneak mugiarazten dituzte istorioek, kasu honetan haurren identifikaziorako eta enpatiarako gaitasuna bermatzeko erabilera izango dutelarik.

Istorio horrekin ahalegina egingo da, ikaslea ohartu dadin, maitasun keinuak edota beste edozein keinu, behartuta ematean, edota aurrean daukagun pertsonak nahi ez duenean jasotzen dituen, gorrotatzera hel daitekeela. Gainera, besarkada eta muxuak ondo sentiarazteko ematen direla ikusaraziko zaie.

⁶ IKUS Gorputzak eta gorputzak jarduera egiteko erabiliko den materiala (6.eranskina)

Jarduera borobiltzeko, nahi eta gorrotoen inguruan hitz egin ostean, maitasuna emateko, gure artean agurtzeko edota jendearengana hurbiltzeko keinu bat asma dezaten proposatuko zaie. Baldintza bakarra jarriz, keinu horrek beste pertsonarekin kontaktua izan behar duela. Behin asmatuta horiek praktikara eramateko, joko txiki bat burutuko dute, besarkadek eta muxuek duten konnotazio positiboa indartzeko asmoarekin.

Zapi baten laguntzaz eta ikasleak borobilean daudelarik burutuko litzateke jolasa. Ikasleak borobilaren erdira irtengo dira banan-banan nahi izanez gero eta zapiarekin begiak estaiko zaizkie, orduan gainontzekoek nahi duten keinua erabiliz, besarkada, musua edota alde zurretik asmatutakoa, maitasuna eman beharko diote erdian dagoen ikasleari. Garrantzitsua da aipatzea, ez dela inor ariketa edo jolasa egitera behartuko, nahi duen ikasleak aukera izango du bai erdian egoteko eta baita erdian dagoenari maitasun keinua luzatzeko ere. Gainontzeko esku-hartzeko jarduera askotan egin den bezala, oraingoan ere, ikasleak aukera izango du jarduera burutzen nola sentitu den irudikatu eta bere postontzian sentimendu edo emozio hori gordetzeko.

Azkenik, esku-hartze jarduerekin amaitzeko, *Posttest*-a pasako zaie ikasleei *Pretest*-arekin alderatuz, hobekuntzak eman diren edo ez ikusi eta ondorioak atera ahal izateko.

3. Lanaren garapena

Atal honetan, burututako jardueretan errealitatean gertatutakoaz hitz egingo da. Izan ere, planifikatuta dagoen horretatik ondoren errealitatean gertatzen dena ezberdintasunak ematen dira. Gainera, ikasle taldearen egun horretako egoerak ere baldintzatzen du jarduera bera eta agian momentuko moldaketak egin behar izaten dira jarduera aurrera eramateko.

Jardueretan gertatutakoa azaltzen hasi aurretik aipatzekoa da, ikasleei honako informazio hau helaraztea ezinbestekoa dela; beraien laguntza beharrezkoa dela ikerketa hau aurrera eramanez ahal izateko eta beraiek burutzen duten lana guztiz anonimoa izango dela. Ohartu behar dira ez dela beraiek egiten duten hori ebaluatuko, baizik eta jarduera horien bitartez beraiegan ematen den aldaketan baino ez dela arreta jarriko.

3.1 Pretest-a

Galdetegia burutzerako orduan ez da inolako arazorik egon, ikasleak banan-banan eserita zeudela galderak erantzun dituzte. Aipatzekoa da, galdetegia egiteko ordubeteko denbora aurreikusten zela eta bete egin dela, nahiz eta ikasle batzuek pixka bat lehenago bukatu

duen. Lehenengo orriko ezaugarri gehienak ulertu egin dituzte, ordea, segurtasun handiko pertsonak zer esanahi zuen azaldu egin zaie badaezpada.

Galderei erreparatuz, lehenengo eta bigarren orriak burutzen igaro dute denbora gehiena, beraien nortasun ezaugarriak borobildu eta beraien gorputza irudikatzen. Gainontzeko galderak nahiko arin erantzun dituzte.

3.2 Postontzi magikoa

Jarduerari hasiera emateko arbelean postontzi magikoaren kartela itsatsita jarri da, ikasleen arreta lortzeko. Ondoren ikasgelan gure buruaren inguruko ezagutza eta emozioak partekatzeko txoko baten beharra azaldu zaie ikasleei eta denon artean txoko bat aukeratu da postontziak kokatzeko. Jarraian, txoko hori apaintzeko kartulinak kokatu dira oinarri bezala eta izenburu handi bat ere sortu da.

Behin txokoa sortuta, ikasle bakoitzari sobre bat banatu zaio eta hori apaintzeko eskatu, beraiak nahi duten bezala irudikatzen. Ikasleek ilusio handiz apaindu dituzte sobreak, gainera, txoko hori sortzeak eta horri erabilera emango zitzaioela jakiteak motibatu egin ditu.

Apaintzen amaitu ostean, bakoitzak bere postontzia txokoan itsatsi duenean, papertxo batean beraien inguruko ezaugarri positibo bat idazteko edota irudikatzen eskatu zaie. Gehienek, idatzi egin dute beraien ezaugarri positiboa, baina izan dira irudia erabiliz ere adierazi dutenak. Behin idatzita, postontziaren erabilerari hasiera emateko, bakoitzak bere sobrean idatzitakoa sartu du. Aipatzekoa da, ikasleek, postontzian gauza gehiago sartu nahi izan dituztela dinamika amaitzean, jarduerarekiko motibazioa erakutsiz.

3.3 Nik ere gauza politik entzun eta esan ditzaket

Hurrengo dinamika honetan, *postontzi magikoari* erabilera emango zaio baita. Ikasleak lau taldeetan kokatu (beraien egunerokotasunean eserita dauden bezala egonik) eta, ikasleari, hiru taldekideei ezaugarri positibo bana idazteko eskatu zaio. Lehenengo jardueran ezaugarri positiboen azalratzea nolako izan den ikusita, jarduera burutzen hasi haurretik, ikasleei ezaugarri positibo ezberdinen adibideak⁷ jarri zaizkie arbelean.

Adibide horiek erreferentzia bezala izanik, errazago burutu dute jarduera, zalantza gutxiago izan baitituzte ezaugarriak aukeratzeko. Bestalde, aipatzekoa da, ikasle batzuek laguntza behar izan dutela nahi zituzten hitz edota esaldiak idazteko eta batzuek

⁷ IKUS ikasleei adibide gisa jarri zaizkien ezaugarri positibo ezberdinak (7.eranskina)

besteek baino lehenago amaitu dutela. Beraz, amaitu duten ikasleei gainontzekoei laguntzeko eskatu zaie. Hala ere, hiru irakasleren laguntza egon da gelan, beraz, erraza izan da dinamika aurrera eramatea eta ikasleentzako aberasgarria izan da jasotako laguntza indibidual hori.

Ezaugarri horiek idatzita, ikasleak desiratzen egon dira beraien postontzietan zeuden hiru ezaugarriak irakurtzeko, orduan, bakoitzak bere postontzian zegoena hartu eta irakurri egin du. Ondoren borobilean, dinamika burutzean sentitu dutenaren inguruan pentsatzeko eskatu zaie baina altuan ezer esan gabe, beraiantzako gorde eta emozioen txokoan beraien izena nahi zuten emozioan kokatzeko eskatu zaie.

Ikasle gehienek beraien izena *pozik* emozioaren zutabearen kokatu dute, beraz, ondoriozta genezake gehiengoak poztasuna sentitu duela dinamika burutzean. Hori dela eta irakasleak, gainontzekoei gauza politik esatearen garrantzia nabarmendu du gelan. Orduan, ikasleak jarduera bukatu denean hitz polit gehiago idazteko nahia adierazi dute, beraien taldekoenaz gain, gainontzeko klasekideen hitzak irakurri nahi baitzituzten.

3.4 Desberdintasuna aberastasun

Jarduera honetan, *El circo de las mariposas*⁸ deituriko film laburraren hiru zati landu dira, aldez aurretik aukeratuak izan direnak. Pelikula zati bakoitzaren ostean, ikusitako a komentatu da, irakasleak aldez aurretik prestatutako galdera batzuetan oinarriturik.

Filma ikustean beso eta hankarik ez zuen protagonista agertu denean erreakzio ezberdinak eman dira ikasleen artean; batzuek nazka aurpegia jarri dute, beste batzuek eskuak begietara eraman dituzte, ikusi nahi izango ez balute bezala eta beste batzuen artean tristura eta ezjakintasuna izan dira nagusi.

Espero bezala, ikasleentzako berria izan da ezaugarri konkretu horietako pertsona bat ikustea. Beraz, naturaltasunez, beste adibide batzuk jarri dira pelikula zatia amaitzean, hala nola; besoa galtzen duen langile baten egoera eta atzamar gabe jaiotzen den hauraren egoera, horrela, aniztasuna azalaraziz.

Ikasleek beraiena ez den egoera baten aurrean egokia ez dena salatze gaitasuna dutela ikusi da, jarrera gaiztoz jokatzeko duena salatuz. Beraz, ikasleei aukera eman zaie beraien noizbait bizi izandako antzeko egoera bat kontatzeko. Egoera ezberdinak irten dira,

⁸ IKUS “El circo de las mariposas” pelikulatik (ITURRIA: <https://www.youtube.com/watch?v=Sry7DacKtbk>) aukeratutako hiru zatiak (8.erasquina)

ikaskideen arteko liskarrak gehienak eta horiei garrantzia emanez arazoak konpontzeari ekin zaio.

Jarduera honen helburuetako bat haurren barruak pixka bat mugiaraztea izan da, gainontzekoen lekuan jartzeko gaitasunak garatzen hastea eta ezberdintasunak, bazterketa edota umilazioa gauzatzeko oinarri gisa erabili behar ez ditugula ikusaraztea, hori egin ezean sor dezakegun minaz kontzientzia hartzea. Beraz, ikasleen erreakzio eta hizketaldiak kontuan hartuz lanketa hori burutu dela esan genezake.

Saioarekin amaitzeko eta *postontzi magikoari* erabilera emanez, ikasleei aukera eman zaie ikusitakoaren inguruko irudi txiki bat egiteko, bertan, sentitutakoa margozteko eskatuz. Gainera, amaitutakoan talde txikian kontatzeko aukera luzatu zaie, zerbait aipatu gabe gelditzekotan, horren inguruan hitz egiteko momentua izan dezaten.

Amaitzeko aipatzeko litzateke, film laburreko bigarren eta hirugarren zatian gertatzen denak ere, asko harritu dituela ikasleak. Izan ere, besorik eta hankarik ez duen pertsonaiak, bakarrik igeri egitea lortu eta zirku batean lan egiten amaitzen duenean, ikasle askok harridura esaldiak adierazi dituzte. Horrela ikusi dute, norberak bere muga edota ahulguneak izanda ere, lan eginaz, esfortzuarekin, konfiantzarekin eta garrantzitsuen dena, norberarekiko onespenearekin, zenbait helburu lor ditzaketela.

3.5 Gorputzak eta gorputzak

Jarduera hau jolas bat bezala planteatu da, gorputzekin eta gorputz atalekin jolasteko materiala erabiliz. Material guztia (gorputz ezberdinak, begiak, sudurrak, bekainak, aluak...) sortu egin da, kolore, forma eta tamaina desberdinetako gorputzak irudikatuz eta gorputz atalen eta arropen argazki ezberdinak plastifikatuz, ikasle taldeari egokituak, noski. Hau, ikasleen eskura jarri eta beraien gorputzen nolakotasunaren adierazpenak burutu dituzte.

Aipatu beharra dago klasea bi taldeetan banatzeak, erraztu egin duela ikasleek jarduerarekiko arreta mantentzea, horrela, batetik norberak bere gorputza nolakoa den adierazteko arreta jarriz eta nolako izatea gustatuko litzaiokeen adierazteko denbora hartuz.

Jarduerari hasiera emateko irakasleak, lehenengo taldearekin, bere gorputzaren inguruko adierazpen kazkarra burutu du, ikasleen arreta beraganatu eta probokazio bat sorrarazteko. Orduan, ikasleak zeharka beraien gorputz errealaren adierazpena burutu behar duela barneratu du, ez ordea gustatuko litzaiokeen hura. Jarraian ikasleak banaka

edota binaka arbelera irten eta itsasgarriak erabiltzen hasi dira. Bigarren taldean berriz, irakasleak arbelean kokaturiko materialarekin jolasteko proposamena egin die ikasleei, beraiei gustatuko litzaieken gorputza adierazteko eskatuz.

Jardueran orokorrean, ikasleak gai izan dira beraien gorputzak zuzenki adierazteko. Ordea, aipatzekoa da, neska gehienek beraien genitalak ez dituztela adierazi, “ez dut nahi” hitzen bidez justifikatuz beraien jarduna. Ordea, mutil gehienek arazorik gabe edota gehienetan arro eta gogo aurpegiz itsatsi dituzte beraien genitalak gorputzean. Gainera, mutil asko gai izan dira aukeratzeko zeuden genitalen artean beraiena aukeratzeko, horren inguruan hausnartzeko denbora hartuz. Argi eta garbi ikusi da ikasleen artean, genitale n ezagutza eta onarpenari dagokionez neska eta mutilen artean dagoen aldea.

Horrez gain, ariketa egitean, ikasle bat negarrez hasi da eta ikasgelatik atera du irakasleak lasaitzeko helburuarekin. Ikasle hori, txarto sentitu da bere azal kolorea gainontzekoengandik desberdina zelako eta bere gurasoak gertu ez zeuzkala adierazi dio irakasleari. Ikasleari orain arte adoptatua izateak horrenbeste barne gatazka sortzen zizkiola uste ez zen arren, jarduera honi esker ikasle horrekin zer landu badagoela ikusi ahal izan dugu, ikaslearen errealitateak bere egoera emozionala horrela baldintzatu ez dezan.

Orokorrean, burutu diren bi jolas edota ariketa txikietan, aipatzekoa da neskek gehien erabili duten arropa soineko larrosa izan dela, mutilek aldiz, kolore ezberdinetako arropak erabili dituzte, kasu honetan ez da kolorerik nabarmendu.

Bestalde, gustatuko litzaiekeen gorputzak adierazi dituztenean, bai mutil zein nesken kasuan, begi urdinak izan dira erabilienak. Orokorrean, ikusi da, itxurari edota estiloari garrantzia ematen diotela, izan ere, arropak aukeratzeko orduan, kamisetak eta zapatilak kolore berekoak jarri dituzte ikasle askok.

Dinamika diseinatu bezala burutu den arren, ikasle batzuei ez die denborarik eman bi dinamikak burutzeko, hau da, batzuek ez dute denborarik izan beraien gorputza edota gustuko gorputza adierazteko, beraz, hurrengo saioan amaitzeko aukera eman zaie.

3.6 Niri ere gertatzen zait

Jarduerari hasiera eman aurretik, hamabost bat minututan ikasleek *gorputzak eta gorputzak* jardueran bukatu ez zutena amaitzeko aukera eman zaie, horrela, ikasle guztiek beraien gorputza eta gustuko gorputza adierazteko aukera emanaz.

Behin horrekin amaituta, aurkezpen⁹ baten gidaritzapean, harremantzeko mundu mailan, harremantzeko dauden modu ezberdinak landu dira. Ikasle gehienek argazkiak ikustean barre egin dute, pertsonen arteko kontaktuak edota keinuak berak barregura sorrarazi baitie.

Horrekin jarraituz, besarkada eta muxuen inguruan galdetu zaie, ea ematen dituzten, eroso sentitzen diren ematen edota jasotzen dituztenean...Mutilen gehiengo handi batek aitortu du muxuak eta besarkadak gorroto dituztela, ordea, neska guztiek esan dute asko gustatzen zaizkiela, batez ere, besarkadak. Orduan, ipuin edota istorio ¹⁰txiki bat kontatu zaie, besarkada eta muxuen ingurukoa. Adi-adi eta isilean entzun dute istorioa, gainera lehenengo pertsonan kontatu denez, arreta gehiago jarri dute.

Istorioa amaituta eta batzuek besarkada eta muxuekiko jarrera negatiboa dutela ikusita, jolas txiki bat egin da, konnotazio negatiboari indarra edota garrantzia kentzeko. Orduan, ikasleek aukera izan dute, harremantzeko beste keinu bat asmatzeko, keinu horrek gainontzekoekin kontaktua izan behar zuelarik. Ikasleak oso gustura aritu dira keinu berriak sortzen eta sekulako aniztasuna ikusi da, keinu ezberdin asko irten baitira. Irudimen handia dutela ikusi da.

Keinu horiek praktikara eraman dira ondoren, parte hartu nahi izan duen ikasle bat, begiak estalita erdian jarri eta gainontzekoek keinu berri hura edota besarkada bat eman diotenean. Jolas bezala planteatu denez, bai mutil zein nesken parte hartzea oso altua izan da eta momentu batean ere ez da inolako konnotazio negatiborik adierazi keinu edota besarkadak ematean.

3.7 Posttest

Esku-hartzeekin amaitzeko, *posttest* galdetegia bete dute ikasleek. Oraingo honetan, *Pretest*-etik (hasieran pasatako galdetegitik) aldaketa txiki bat egon dela azaldu zaie eta berehala hasi dira galdetegia betetzen.

Aurrekoan baino arinago burutu dute galdetegia eta jarduera alde aurretik diseinatuta zegoen bezala irten da. Ordea, aipatzekoa da, zenbait ikasle gerturatu direla, galdetegiko bigarren ariketan (beraien gorputzak irudikatze eskatzen zaien ariketan), sudurra eta belarriak irudikatu nahi ez dituztela esanez, irudia beraiekin itsusi geratzen dela arrazoituz.


⁹ IKUS “Niri ere gertatzen zait” jarduerarako burututako aurkezpen digitala (9.eranskina)

¹⁰ IKUS “Niri ere gertatzen zait” jardueran erabili den ipuin edo istorioa (10.eranskina)

4. Emaitzak

Emaiztezi dagokienez, *Pretest* eta *Posttest* galdetegietan erantzundakoaren arteko konparaketa burutu da eta eman diren aldaketa interesgarri edota nabarmenen inguruan hitz egingo da. Izan ere, galdetegiko zenbait ariketa edota galderetan ez da aldaketa esanguratsurik eman, beraz, horiek alde batera utziz, aldaketa nabarmena eman den horietan jarriko da arreta. Horretarako, ezinbestekoa zaigu datuak aztertzeko jarraitutako irizpideei¹¹ erreparatzea.

Hasteko, galdetegietako emaitzetako¹² lehenengo ariketan ikus genezake aldaketa interesgarri bat; *indartsua* eta *lagun ona* bezalako ezaugarrietan hain zuzen. *Pretest*-ean mutilen % 88,24ak bere nortasun ezaugarritzat *indartsua* borobildu zuen beste batzuen artean, eta nesken % 44,44ak baino ez. *Posttest*-ean aldiz, mutilen % 82,35ak jarri du *indartsua* nortasun ezaugarri gisa eta neskei dagokienez, ez da aldaketarik eman, berdin mantendu da, % 44,44an, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala:



1.Grafikoa: Indartsua ezaugarriaren emaitzak

Lagun ona ezaugarrian arreta jarritz, ikus genezake, mutilen kasuan batez ere, aldaketa nabarmena eman dela, hasieran, %64,7ak baino ez zuen ezaugarri hau hautatu, amaieran ordea, % 94, 12ak (ikasle taldeko ia mutil guztiek) aukeratu du.

Emaiztekin jarraituz, galdetegiko bigarren ariketan jasotako emaitzetara joko dugu orain. Bertan, neska eta mutilen artean, desberdintasun nabarmenak eman dira baita, esanguratsuenak ere; betileetan eta genitaletan¹³. Hasieran, mutilen kasuan, batek baino ez zituen bere genitalak irudian adierazi, amaieran ordea, 8 izan dira genitalak irudikatu

¹¹ IKUS Pretest eta Posttest galdetegien emaitzak konparatzeko jarraitutako irizpideak (11.eranskina)


¹² IKUS Pretest eta Posttest galdetegietako emaitzak (12.eranskina)

¹³ IKUS Ikasleek burututako genitalen eta betileen irudien adibideak (13.eranskina)

dituztenak. Nesken kasuan ordea, *Pretest*-eko zein *Postest*-eko emaitzak berdinak izan dira, inork ez du bere genitalik irudikatu.

Betileen kasuan aldiz, hasieran hamazazpi mutiletatik bik soilik irudikatu zituzten hauek, nesken kasuan aldiz, bederatzitik zazpik. Amaieran, nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak nabarmena izaten jarraitzen duen arren, bi kasuetan aldaketa eman da betileen presentzian; lau mutilek marraztu dituzte betileak eta nesken kasuan guztiak.


Ariketa honen konparaketarekin amaitzeko, aipatzekoa da, bai neska zein mutilen kasuan, gorputz atalen marrazketa zehatzagoa izan dela *Postest*-ean, hasieran irudikatzen ez zituzten gorputz atal gehiago irudikatu dituztelarik.



2.Grafikoa: Betileen eta genitalen emaitzak.

Emaitzekin amaitzeko ezin aipatu gabe utzi hirugarren ariketa. Honetan, besarkadekin sentitzen diren emozioetara joz, erantzun ezberdinak eman dira neska eta mutilen artean *Pretest* eta *Postest* galdetegietan. Nesken erantzunei erreparatzen badiegu, ohartuko gara, *Pretest*-ean, zortzik, pozik sentitzen zirela jarri zutela eta batek triste sentitzen zela. *Postest*-ean ordea, bederatziek (neska guztiak) pozik sentitzen zirela adierazi zuten.

Mutilen kasuan, *Pretest*-ean aniztasun handiagoa eman zen erantzunei dagokienez, izan ere, zortzik haserre sentitzen zirela adierazi zuten, batek *triste* emozioa aukeratu zuen, zazpik pozik sentitzen zirela eta azkenik, batek *urduri* emozioa hautatu zuen. *Postest*-eko emaitzetan ordea, aldaketa nabarmen bat ikus daiteke; batek soilik aukeratu du haserre sentitzen dela, bederatzik pozik sentitzen direla, seik *urduri* emozioa aukeratu dute eta azkenik, batek *triste* emozioa. Horrela, esan genezake, hasiera batean beraien buruak haserre adierazi zituzten mutil asko, besarkatzean, *urduri* edota pozik sentitzen direla adieraztera pasa direla.



3.Grafikoa: Besarkatzean sentitzen dituzten emozioen ezaugarrien emaitzak

5. Ondorioak

Orokorrean, aipatu beharra dago, ikasleen autoezagutzan aldaketa nabarmenik edota handirik ez dela nabaritu, bai ordea, orain arte zituzten ideia edota buru-eskemak zalantzan jarri eta bide berriak zabaltu zaizkiela. Izan ere, autoezagutza eta autoestimua nortasunaren ardatz nagusiak dira, beraz, ez dira egun batetik bestera aldatzen, aldaketak luzarora ematen dira. Horrela izango ez balitz, etengabeko nortasunaren desoreka batean biziko ginateke. Bestalde, emaitzak oinarritzat hartuz esan genezake, autoezagutza fisikoan nabaritu direla aldaketa esanguratsuenak, espero zen bezala. Lehenengo mailako ikasleak, autoezagutza fisikotik abiatuz, euren buruaren gainontzeko ezagutzetara joaten baitira.

Galdetegi-tako emaitzak ikusita, esan genezake ezberdintasun handiak daudela neska eta mutilen artean, bai beraien ezagutza fisikoari zein ezagutza psikologikoari dagokionez, gizarteak horretan duen eragina kontuan hartuz, noski. Emaitzetan aipatu den bezala, mutilen % 88ak sailkatu du hasieran bere burua indartsutzat, nesken kasuan aldiz, % 44ak. Beraz, esan genezake, interbentzioaren ostean, ikasleei, batez ere mutilei, nortasun ezaugarri berriei erreparatzeko aukera eskaini zaiela, *Posttest*-eko emaitzetan ikusten den bezala; mutilen % 82ak indartsua eta % 92ak lagun ona ezaugarria aukeratu duelarik.

Ondorioekin jarraituz, aipatzea gustatuko litzaidake, esku-hartze osoan zehar eman eta aztertu diren emaitzetatik interesgarri edota pisutsuenak iruditu zaizkidanak genitalei eta betilei dagozkienak izan direla. Izan ere, argi ikusten da, baita lehenengo mailatik ere, neskek eta mutilek genitalekin eta betileekin ditugun harreman edota bizipenak ezberdinak direla. Zergatik diot hori?

Pretest eta *Postest* galdetegietako emaitzetan ikus daitekeen bezala, nesken gehiengoak marrazten ditu betileak begietan eta ez ditu ordea bere genitalak irudikatzen. Mutilen kasuan aldiz, kontrakoa gertatzen da, esku-hartzea burututa, mutil batzuek beraien genitalak irudikatu dituzte beraien gorputzeko atalak adieraztea eskatu zaienean, gutxi batzuek ordea irudikatu dituzte betileak. Besarkaden trataeran ere, antzeko zerbait gertatu da. Argi ikusi da, besarkadak ematean neskak eroso sentiarazten direla, mutilak haserre edota urduri sentiarazten direla adierazten duten bitartean.

Zer pentsa ematen didate lan honetan aterata ondorio hauek eskola edota hobeto esanda hezkuntza formalaren garrantziari buruz. Irakasleek duten erantzukizun eta ardura horretaz ohartzen ote gara? Bizi garen gizarteaz ere zer pentsa ematen du guzti honek. “Oinez ikasi orduko hegan egiten ahantzi”-dio Anari Alberdiren Aingura Hegodunak abestiak. Horretan gaude gizartearen eraginpean berori geuk, agian, etengabe sustatzen dugun artean. Gero eta nagusiagoak egin, orduan eta ahaztuago dugu nor garen, zer nahi dugun, zer sentitzen dugun...estereotipo eta genero bakoitzari esleitzen zaizkien arau, jarrera eta balio ezberdinetan murgildurik.

Ondorioekin amaitzeko, irakurle, subjektibotasunez betetako neure sentimenduak azaleratu nahiko nizkizuke. Horiek, noski, sarri dakarten eragin poetiko baten saiakerarekin:

Orain arte idatzitakoaren indarraren kondizio tamalaren beldurrak, axolagabekeriaren suntsipena gauzatzeko, ekintza erantzulearen premia daukagula esatera behartzen nau. Axolagabekeriaren axolaren premia. Begiratzeko premia. Begiratzeko, baina, ez jada haurtasuna galarazi dioten haurraren begi gaixotuak. Ez eta aurpegi abailek ohi dituzten irri bihotz-bahitzaileak, azken hauek, irri baino, zabaltzen eta ixten zaizkien orban dituzten arren. Ez manipulazioa, zapalketa edo bidegabekeria. Ez sexismoa, auto-desezagutza edo isiltasuna. Bai, agian, itsasoa eta zerua eta lurra eta izarrak. Baina ez, ordea, horien edertasunaren txikiestzaileen begiak. Ez; dagoeneko, aurrekoak begiratuak izan dira sarri askotan. Horiek guztiak begiratu arren, izoztuta jarraitzen duten begi erailak begiratzeko beharra baizik.

Izar batek besteari oihukatu egin dio itzaltzen utzi ez diezaion, eta besteak ez dio jaramonik egin, eta izarren oihua arrailgarria da oso, eta besteak ez dio jaramonik egin. Orain, bi izar gutxiagoko zerupean darrai erreka gorrak ispilu gogaitu lanetan. Eta itsasoa, itsasoa lotsatuta; gauetan gero eta biluztuago sentitzen delako.

Erreferentzia bibliografikoak

- Amestoy, K. (2017-07-09). Beste arteen gisara ipuinek emozioak pizten dituzte. *Argia: Argi-kontra*, 52-53.
- Arrizabalaga, I. (2017-03-16). Zer nolako maskulinitate-eredua erreproduzitzen du eskolak. *Hik hasi*. Berreskuratua: <http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20170316/zer-nolako-maskulinitate-eredua-erreproduzitzen-du-eskolak>.
- Coll, C., Palacios, J., eta Marchesi, Á. (1990). *Desarrollo psicológico y educación. 2. Psicología de la educación escolar*. Madrid: Psicología y Educación Alianza argitaletxea.
- Fernández Zabala, A., eta Rodríguez Fernández, A. (2007). Autoconcepto: social, físico y general. *INFAD. International Journal of Developmental and Educational Psychology*, 1(2), 217-228.
- Garma, A. eta Elexpuru, I. (1999). *El autoconcepto en el aula. Recursos para el profesorado*. Bartzelona: Edebé.
- Machargo, J. (1991). *El profesor y el autoconcepto de sus alumnos. Teoría y práctica*. Madrid: Escuela Española.
- Martinez, M. (2015). *Lehen hezkuntzan autoezagutza fisikoa, emozionala eta soziala lantzeko proposamen didaktiko baten diseinua eta esku-hartzea*. Euskal Herriko unibertsitatea (EHU), Leioa.
- Miras, M. (2010). Afectos, emociones, atribuciones y expectativas: el sentido del aprendizaje escolar. In, C. Coll, J. Palacios, eta Á. Marchesi, *Desarrollo psicológico y educación. 2. Psicología de la educación escolar* (pp. 309-329). Madrid: Alianza argitaletxea, S.A.
- Navarro Suanes, M. (2009). Autoconocimiento y autoestima. *Revista Digital para Profesionales de la Enseñanza* (5), 1-10.
- Palacios, J., Marchesi, Á., Coll, C. (1990). *Desarrollo psicológico y educación. 1. Psicología evolutiva*. Madrid: Psicología y Educación Alianza argitaletxea.
- Santos M. A. (2000). *El harén pedagógico. Perspectiva de género en la organización escolar*. Bartzelona: Grao.
- Savater, F. (1997). *El valor de educar*. Bartzelona: Ariel.

Suárez Villegas, J. C. (2007). Estereotipos de la mujer en la comunicación. *Mujeres en Red. Periódico feminista*.

Subirats, M. (1994). Conquistar la igualdad: La coeducación hoy. *Revista Iberoamericana De Educación*. I (6), 49-78.

Bizipenetik sortua


Ezberdintasunak aberasten gaituen arren,
 hor gabiltza elkar ezin onarturik.
 Ez gara nor bere buruaren jabe, estereotipo batzuk ba omen daude nonbait idatzirik,
 geure burua zigortuz
 horiek jarraitu behar ditugula sinetsi nahirik,
 zertan ote gabiltza ez bada munduan gu bezalakorik!
 Zer zara neska ala mutil?
 Zertarako nahi ote hori jakin?
 zure aurrean ikusten duzun hori naiz,
 nire ahulgune eta trebetasunekin.
 Entzun, lagundu eta maite nazazu irakasle
 dudan nortasunarekin,
 sor dezagun jendarte berri bat hartu-emanaz, elkarrekin
 Jendarte horrek beharko lituzke
 zenbait balore barneraturik,
 konfiantza, zaintza, berdintasuna, errespetua eta enpatia...
 ez daitezela galdu bidetik.
 Inork ez dezala sentitu bere burua
 inoren gainetik ezta azpitik,
 botere-harremanekin amaitu dezagun berdintasunean hezirik.
 Bukatu nahiko nuke hausnartzen dugun hezkuntza ez-hezkidetzailleak ia dakartzan
 gudan kalterik,
 estereotipo eta eduki sexistez
 hezi gaituztelarik,
 ditugun konplexu eta segurtasun gabezia horiekin,
 erantzun dezaket galdera soilik.
 Balibideak handituaz doaz ditugun teknologia berrieekin,
 mintzaira sexistek, emakumeenganako zapalkuntzek...berdin jarraitzen dutelarik.
 Haz gaitezen aldaketa burutzen
 lehenbizi geure buruetatik,
 gudanako kritikotasun horrek lagunduko baitigu,
 eskaintzeko daukagun alderdi hezitzaileena ateratzen ikasleekin.

ERANSKINAK

1.ERASKINA: Pretest-a

1. NOLAKOA NAIZ?

LODIA



BELDURTIA



INDARTSUA



ARGALA



AHULA



LAGUN ONA



**SEGURTASUN
HANDIKOA**



URDURIA



**BURU
GOGORRA**




ALAIA



NEGARTIA




2. NOLAKOA DA NIRE GORPUTZA?





3. NOLA SENTITZENNAIZ?


BESARKATZEAN




BAKARRIK GERATZEN NAIZENEAN



LAGUNEKIN JOLASTEAN



GAUZAK ONDO ATERATZEN EZ ZAIZKIDANEAN



**4. ZER GUSTATZEN ZAIT? (ORDENATU GEHIEN GUSTUKO
DUZUNETIK GUTXIEN GUSTUKO DUZUNERA)**



IGERI EGITEA



MUSIKA ENTZUTEA



MARGOZTEA



TELEBISTA IKUSTEA




KIROLA EGITEA

5. ZER GUSTATZEN ZAIT EGITEA? IRUDIKATU

2.ERANSKINA: Postest-a

1. NOLAKOA NAIZ?

LODIA




BELDURTIA



INDARTSUA



ARGALA



AHULA



LAGUN ONA



**SEGURTASUN
HANDIKOA**



URDURIA



**BURU
GOGORRA**




ALAIA



NEGARTIA




**2. NOLAKOA DA NIRE GORPUTZA? HURRENGO ARIKETAN AGERTZEN
DIREN EMOZIOAK GORPUTZEKO ZEINATA LETAN SENTITZEN
DITUZUEN ADIERAZI.**



3. NOLA SENTITZENNAIZ?



BESARKATZEAN

1




BAKARRIK GERATZEN NAIZENEAN

2




LAGUNEKIN JOLASTEAN

3



GAUZAK ONDO ATERATZEN EZ ZAIKIDANEAN

4



4. ZER GUSTATZEN ZAIT? (ORDENATU GEHIEN GUSTUKO DUZUNETIK GUTXIEN GUSTUKO DUZUNERA)



IGERI EGITEA



MUSIKA ENTZUTEA



MARGOZTEA



TELEBISTA IKUSTEA



KIROLA EGITEA

5. ZER GUSTATZEN ZAIT EGITEA? IRUDIKATU

3. ERASKINA: Postontzi magikoaren argazkia



4. ERANSKINA: Emozioen txokoaren argazkia



5. ERANSKINA: KIVA proiektuaren inguruko nondik norakoak

KiVa Finlandiako Turku Unibertsitateak (Finlandiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren babesaz) garatutako **jazarpenaren kontrako programa** da. Christina Salmivalli katredatikoak eta Elisa Poskipartea doktoreak eta ikertzaileak sortua da.

KiVa eskola-jazarpena prebenitzeko eta jazarpen-kasuei modu eraginkorrean aurre egiteko programa bat da, frogatan oinarritua. Prebentzioa funtsezkoa da, baina jazarpenari aurre egitea ere garrantzitsua da, ez baitago jazarpena errotik desagerraraziko duen prebentzio-ahaleginik; jazarpen-kasu bat ezagutzera ematen denean, erabili ahal izango ditugun tresnak behar dira. KiVa-ren hirugarren alderdi garrantzitsu bat da eskolaren egoeraren eta denborarekin gertatzen diren aldaketan etengabeko jarraipena egiten duela; KiVa-n dauden online baliabideei esker egin daiteke hori. Baliabideok eskola bakoitzari buruzko feedbacka ematen dute urtero; zehazki, programaren ezarpenari eta haren emaitzei buruzkoa.

KiVaren helburuak honako hauek dira:

- Bullying-en prebentzioa.
- Jazarpenaren aborlatze eraginkorra egitea.
- Jazarpenaren eragin negatiboak gutxitzea.

Gainera, bide horretan ikasleek beste balore garrantzitsu asko ikasten dituzte:

- Besteak errespetuz tratatzen.
- Ikaskideen presioari eusten.
- Norberaren ardura hartzen.

KiVa-k irakasle, ikasle eta gurasoentzako material ugari du; besteak beste, irakasleen gidaliburuak, bideoak, online jokoak, ikasleen eta langileen KiVa galdetegiak, posterrak, txalekoak eta gurasoen gida. KiVa ez da urtebeteko proiektu gisa diseinatu, baizik eta eskolaren jazarpenaren aurkako lanaren parte iraunkor gisa.

6. ERANSKINA: Gorputzak eta gorputzak jarduerarako erabilitako materiala



7.ERANSKINA: Ezaugarri positiboei buruzko adibideak

- *Oso lagun ona zara, arazoak ditudanean beti laguntzeko prest zaudelako.*
- *Asko gustatzen zait zure irribarrea, indar handia ematen dit eta zoriontsu egiten nau.*
- *Matematiketan oso ona zara, miresten zaitut*
- *Kirolean ona izateaz gain, oso bihotz onekoa zara*
- *Asko gustatzen zaizkit askotan ekartzen dituzun jostailuak*
- *Zure ilea izatea gustatuko litzaidake, oso polita da.*

8. ERANSKINA: El circo de las mariposas inguruko filma lantzeko power-point-a eta galderak


Tximeleten zirkua



- Hona hemen ikusitako film laburraren iturria:
<https://www.youtube.com/watch?v=Sry7DacKtbk&t=167s>



- Zer ikus genezake bideo zati honetan?
- Zergatik egiten ote du barre jendeak?
- Zergatik botatzen diote tomatea umeek?
- Jarrera egokia dela ikusten duzue?
- Zuek noizbait bizi izan duzue horrelako egoerarik?



- Zer ikus genezake bideo zati honetan?
- Nola sentitzen da bera? Laguntza behar al du?
- Gainontzekoek bera ikusten ez dutenean nola sentitzen dira? Zer pentsatzen dute?
- Zein ondorio ateratzen duzue bideo honetatik?



- Zer ikus genezake bideo zati honetan?
- Espero al zenuten ezaugarri horiek zituen pertsona batek bere ametsa betetzea lortuko zuenik?

9.ERANSKINA: Niri ere gertatzen zait jarduerarako aurkezpen digitala



ZERGATIK MUXUAK
ETA BESARKADAK?


TIBET



AFRIKA



INUITAK



SAUDI ARABIA



EUSKAL HERRIA



Zuek ematen dituzue muxuak eta besarkadak?



10. ERANSKINA: Niri ere gertatzen zait jardueran erabilitako ipuin edo istorioa

BEGIRA GAUZATXO BAT KONTATUKO DIZUET NORMALEAN INORI KONTATZEN EZ DIODANA...

Lehen jendeak besarkatzen ninduenean ez zitzaidan bat ere gustatzen. Deseroso sentitzen nintzen. Badakizue zergatik?

Txikia nintzenean gurasoen lagun batek ikusten ninduen bakoitzean estu-estu besarkatzen zidalako, eta batzuetan mina ematen zidan. Momentu horietan txarto sentitzen nintzen, pertsona horrek ez zituela nire nahiak errespetatzen, ez zidan galdetzen ia besarkadak nahi nituen edo ez, eta etengabe, besarkadak eta muxuak ematen zizkidan ikusten ninduen bakoitzean. Nik beti esaten nion: besarkadak eeezzzz...eta alde egiten nuen.

Egun batean, nire ama gaixorik jarri zen eta X-ri ¹⁴gertatu zitzaion bezala ospitalean ingresatu zuten. Ni oso oso urduri eta arduratuta egon nintzen hasieran, niretzat berria zelako ama ospitalean ikustea, eta gainera apurtxu bat ahul. Baina apurka-apurka, egoera berri horretara ohitu nintzen eta badakizue zerk laguntzen zidan asko barruan neukan tristura eta urduritasun hori baretzen?

Lehenengo aldiz bisita egitera joan nintzenean, amak besarkada bat eman zidan eta hain ondo sentitu nintzen ze, konturatu nintzen maitasun handiarekin emandako besarkadek asko laguntzen dutela. Eta hortik aurrera, ospitalera heltzean eta bertatik irtetean nik ematen nion amari besarkada bat. Bera ospitalean utzi behar izateak triste jartzen ninduen, baina, berari emandako eta aitak ondoren ematen zizkidan besarkadei esker lasaitu eta tristura joan egiten zitzaidan.

Eta zuek? Sentitzen al dituzue horrela hurbileko pertsonen besarkadak?

¹⁴ X: Ikasle bat da bi aste ospitalean ingresaturik egon zena.

11.ERANSKINA: Pretest eta Postest galdetegietako emaitzak konparatzeko jarraitutako irizpideak

- 1) Emaitzak konparatzerako orduan, kontuan hartu behar da, ikasle taldean 17 mutil eta 9 neska daudela.
- 2) Nesken eta mutilen artean eman diren emaitzen ezberdintasuna kontuan hartuko da.
- 3) Esku-hartzean zehar, galdetegietan galdetu diren zenbait kontzeptu edota arlo ez dira landu, beraz, emaitzak aztertzerako orduan, galdetegietako atal horiei ez zaie garrantzirik emango.
- 4) Emaitzen aldaketa deigarrienak eman diren atalak kontuan hartuko dira konparaketa burutzeko (autoezagutza fisikoa esaterako).

12. ERANSKINA: Pretest eta Postest galdetegietako emaitzak

PRETEST-EKO EMAITZAK

1.ariketa

Ezaugarria	Mutilak		Neskak		Guztira	
Lodia	3	% 17,6	1	% 11,11	4	% 15,38
Beldurtia	2	% 11,8	5	% 55,55	7	% 26,9
Indartsua	15	% 88,24	4	% 44,44	19	% 73,1
Argala	8	% 47,05	3	% 33,33	11	% 42,31
Ahula	2	% 11,8	2	% 22,22	4	% 15,38
Lagun ona	11	% 64,7	9	% 100	20	% 76,9
Segurtasun handikoa	4	%23,53	2	% 22,22	6	% 23,07
Urduria	2	%11,8	0	% 0	2	% 7,7
Buru gogorra	4	% 23,53	1	% 11,11	5	% 19,2
Alaia	11	% 64,7	6	% 66,66	17	% 65,4
Negartia	1	% 5,88	2	% 22,22	3	% 11,5
Guztira	17		9		26 ikasle	

2.ariketa

	NESKA	MUTILA
Lepotik behera ez du ezer irudikatu (GORPUTZEKOA)	9	13
Lepotik behera gorputzeko atal batzuk irudikatu ditu	0	4
Lepotik behera arropa agertzen da	6	11
Ez du arroparik irudikatu	3	6

EZAUGARRIAK	MUTILAK		NESKAK		GUZTIRA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Begiak irudikatu ditu	17	0	9	0	26	0
Sudurra ” ”	10	7	0	9	10	16
Ahoa ” ”	17	0	9	0	26	0
Belarriak ” ”	4	13	0	9	4	22
Ilea ” ”	11	6	8	1	19	7
Aginak ” ”	8	9	3	6	11	15
Bekainak ” ”	2	15	0	9	2	24
Genitalak ” ”	1	16	0	9	1	25
Betileak ” ”	2	15	7	2	9	17

Marrazketa esanguratsuak:

- **Pekak 2 neskek**
- **Betaurrekoak 2 mutilek**
- **Zilborra 2 mutilek**

3.ariketa

EKINTZAK	NESKAK				MUTILAK			
	Haserre	Pozik	Triste	Urduri	Haserre	Pozik	Triste	Urduri
Besarkatzean	0	8	1	0	8	7	1	1
Bakarrik geratzean	1	0	8	0	8	1	7	1
Lagunekin jolastean	0	9	0	0	0	16	0	1
Gauzak txarto irteten zaizkidanean	1	0	3	5	6	0	3	8

4.ariketa

Gehien gustatzen zaien ekintza (1.postuan jarri dutena)

EKINTZA	NESKA	MUTIL
IGERI EGITEA	6	2
MUSIKA ENTZUTEA	0	0
MARGOZTEA	3	1
TELEBISTA IKUSTEA	0	7
KIROLA EGITEA	0	7
GUZTIRA	9	17

Gutxien gustatzen zaien ekintza (5.postuan jarri dutena)

EKINTZA	NESKA	MUTIL
IGERI EGITEA	0	2
MUSIKA ENTZUTEA	1	6
MARGOZTEA	0	6
TELEBISTA IKUSTEA	4	0
KIROLA EGITEA	4	3
GUZTIRA	9	17

5. ariketa

	NESKA		MUTIL	
	BAI	EZ	BAI	EZ
Beraiek burutzen dute ekintza (beraiek agertu)	7	2	7	10
Kirola egiten dabilta	4	5	7	10
Teknologiaren erabilera	0	9	7	10

- Txirula jotzen (neska 1)
- Margozten (3 neska)
- Liburua irakurtzen (1 neska)
- Familiarekin (1 mutil)
- Kotxeak (1 mutil)
- Txakurra paseatzen (1mutil)

POSTEST-EKO EMAITZAK

1. ariketa

Ezaugarria	Mutilak		Neskak		Guztira	
Lodia	4	% 23,53	0	% 0	4	% 15,38
Beldurtia	2	% 11,76	2	% 22,22	6	% 23,08
Indartsua	14	% 82,35	4	% 44,44	18	% 69,23
Argala	8	% 47,06	5	% 55,55	13	% 50
Ahula	0	% 0	0	% 0	0	% 0
Lagun ona	16	% 94,12	8	% 88,88	24	% 92,31
Segurtasun handikoa	6	% 35,29	1	% 11,11	7	% 26,92
Urduria	2	% 11,76	1	% 11,11	3	% 11,54
Buru gogorra	4	% 23,53	1	% 11,11	5	% 19,23
Alaia	13	% 76,47	8	% 88,88	21	% 80,77
Negartia	2	% 11,76	1	% 11,11	3	% 11,54
Guztira	17		9		26 ikasle	

2.ariketa

	NESKA	MUTILA
Lepotik behera ez du ezer irudikatu (GORPUTZEKOA)	9	10
Lepotik behera gorputzeko atal batzuk irudikatu ditu	0	7
Lepotik behera arropa agertzen da	8	10
Ez du arroparik irudikatu	1	7

EZAUGARRIAK	MUTILAK		NESKAK		GUZTIRA	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Begiak irudikatu ditu	17	0	9	0	26	0
Sudurra ” ”	13	4	3	6	16	10
Ahoa ” ”	17	0	9	0	26	0
Belarriak ” ”	9	8	2	7	11	15
Ilea ” ”	14	3	9	0	23	3
Aginak ” ”	11	6	3	6	14	12
Bekainak ” ”	4	13	3	6	7	19
Genitalak ” ”	8	9	0	9	8	18
Betileak ” ”	4	13	9	0	13	13

Non azaldu dira emozio gehienak?

Emozioen kokapenean ez da emaitza esanguratsurik ikusi

3.ariketa

EKINTZAK	NESKAK				MUTILAK			
	Haserre	Pozik	Triste	Urduri	Haserre	Pozik	Triste	Urduri
Besarkatzean		9			1	9	1	6
Bakarrik geratzean	3		6		7	1	9	
Lagunekin jolastean		9				17		
Gauzak txarto irteten zaizkidanean	1		2	6	4		3	10

4.ariketa

Gehien gustatzen zaien ekintza (1.postuan jarri dutena)

EKINTZA	NESKA	MUTIL
IGERI EGITEA	6	3
MUSIKA ENTZUTEA	0	0
MARGOZTEA	2	2
TELEBISTA IKUSTEA	1	2
KIROLA EGITEA	0	9
GUZTIRA	9	17

Gutxien gustatzen zaien ekintza (5.postuan jarri dutena)

EKINTZA	NESKA	MUTIL
IGERI EGITEA	1	2
MUSIKA ENTZUTEA	1	6
MARGOZTEA	1	3
TELEBISTA IKUSTEA	3	2
KIROLA EGITEA	3	3
GUZTIRA	9	17

5. ariketa

	NESKA		MUTIL	
	BAI	EZ	BAI	EZ
Beraiek burutzen dute ekintza (beraiek agertu)	8	1	7	9
Kirola egiten dabilta	3	6	7	9
Teknologiaren erabilera	1	8	6	10

Mutil batek eta neska batek irakurtzen irudikatu dute beraien burua

Mutil batek eta bi neskek irudikatzen irudikatu dute beraien burua

Mutil baten familiarekin irudikatu du bere burua

13. ERANSKINA: Ikasleek burututako betileen eta genitalen irudien adibideak

